

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak gauza ugari behar ditu saltzen dugunak funtziona dezan, besteak beste; baliabide fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoen aldetik, gure enpresak triptikoak erabiliko ditu jende gehiagok gure enpresari buruz jakin dezan; horren ondorioz, gure enpresaren ikusgarritasuna eta diru-sarrerak handitzea espero dugu. Gainera, baliabide fisikoen artean sartzen dira gure lokalak eta egunerokotasunean erabiliko ditugun materialak.

Baliabide intelektualen barruan sartzen dira markaren irudia, logotipoa, gure zerbitzuen edo produktuen inguruko ezagutza espezializatua, negozio-eredua eta bezeroekin erlazionatzeko sortutako edukia. Baliabide hauek ezinbestekoak iruditzen zaizkigu lehiakortasuna eta identitate propioa mantentzeko.

Giza baliabideen aldetik, gure enpresan pertsonak dira baliabide garrantzitsuenetakoa. Langileen esperientzia, motibaioa, lan-giroa, etab. dira enpresaren funtzionamendu egokirako. Horien artean egongo lirateke langileak, marketing-arduradunak eta bezeroentzako arretako pertsonala besteak beste.

Enpresa martxan jartzeko beharrezkoa da dirua. Horien artean diru-sarrerak, inbertsioak edo maileguak. Finantza-kudeaketa egokiak emango digu aukera gastuei aurre egiteko eta epe luzerako proiektuak garatzeko.

Eta azkenik, guretzako oso funtsezkoa izango dira sare sozialak. Erakargarria izan beharko du bezeroen arreta eta interesa pizteko.